

Espediente mota: Administrazio kontratazioa
Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura irekia.
Espediente zenbakia : ZE10-V-14

BERMEOKO ALDE ZAHARRERAKO SARBIDE SISTEMA ETA ZEHAIBIDE SEMAFOROAK MANTENTZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I – LEHIAKETAREN EZAUGARRIA

1.- XEDEA

Baldintza agiri honen xedea Bermeoko udalerriko alde zaharrerako sarbideen kontrolaren sistema automatikoa da, Udaltzaingoaen egoitzan zentralizatuz.

Aldi berean, udalerrian jarrita dauden semaforoan mantentze zerbitzua ere eskainiko da.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Bi urte iraungo du kontratuak, eta beste urtebete luzatu daiteke.

3.- LIZITATZAILEEN BALDINTZAK

Lizitatzailleek administratibo-baldintza zehatzen orrietako 17. artikuluan adierazitakoa kreditatu beharko dute.

4.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

- Sistemaren elementu guztiak sartuko dira mantentze lanean, obra zibila ere barne, hardwarea eta softwarea, etab. Zerbitzuaren Zuzendaritzak finkatutako aldaketak ere bai.
- Adjudikazioduna derrigortuta egongo da instalazioetan sortutako edozein matxura konpontzera, bai instalazio beraien zein kanpoko agenteen akatsengatik, hala nola, uholdeak, meteorologiaren deskarga elektrikoa, etab., edota instalazioetatik kanpoko beste edozein eragilek egindakoa, basatikeria barruan dela edo hirugarren batzuei leporatu ahal zaizkien hondamenak. Ez dira sartuko hor dagokion salaketa egin ostean udalak kalteen egileengandik kalteok konpontzeko diru nahikoa jaso badu. Kasu horretan, eta kobratu eta gero, adjudikaziodunari ordainduko zaio konponketaren kostua.
- Bere kontura izango dira izaera elektrikoeko meteorologiak, eurite gogorrek (uholderik izan barik), ingurumen gaziak eta abar, sisteman eragindako matxurak. Mantentze lanetan sartuko da elementuen kanpoko itxura beti bikaina izatea, pintadak, kartelak, eransgarriak eta abar kenduta.

- Agiri honetan agertzen diren eginbeharrak betetzeko behar diren giza baliabide guztiak jarriko dira eta beste gehigarriak ere eskaintzan proposatu lirakeenak. Kopurua eta kualifikazioa eskaintzarekin batera aurkeztutako proiektu teknikoan justifikatu beharko da, proposatutako langileen curriculuma erantsita.
- Adjudikaziodun enpresa beraren langileek ez dute edukiko inolako lan izaerako ezta izaera juridikoko harremanik udalarekin kontratuak irauten duen bitartean ez gero ere. Adjudikaziodunaren kontura egongo da betebeharrak guztiak betetzea, zein kontratu honetatik eratorritako kalte-ordainak eta erantzukizunak ordaintzea, langileen gastu guztiak, soldatak eta Gizarte Segurantzako kotizazioa ordaintzea barru direla, baita gastu orokor guztiak eta zergak ere.
- Ez da onartuko mantentze zerbitzua azpikontratatzeko.
- Enpresa adjudikaziodunaren harremana udalarekin solaskide bakarraren bidez egingo da. Zerbitzuaren arduraduna izango da hau eta horren nortasuna eta curriculuma eskaintzan adieraziko da.
- Instalazioetan esku-hartzeko epeak ezin izango dira jarraian zehazten direnak baino handiagoak izan. Eskatzen den zerbitzuaren proiektuan justifikatuta eta organo kontratatzaileak onartuta egotea hartuta salbuespentzat:
 - ✓ Oharra hartzen denetik 24 orduko gehienezko epe barruan matxura dagoen lekuan egon ahal izateko gaitasunarekin bertaratuko da enpresako langile bat.
 - ✓ Lan egun bi baino denbora handiagoan aurreikusi behar diren matxuretan, bolardoak, txartel-irakurgailua edo dena dela ordeztu beharko da. Oharra hartu denetik 48 ordu garrenarako guztiz erabilgarri egon behar da.
 - ✓ Oharra hartzen denetik 72 ordura, pintada, eransgarriak, kartelak guztiz kenduta egon beharko dira.
- Zerbitzua ematea, diseinatu eta garatuko da, proposatutako zerbitzuaren proiektuan agertzen denaren arabera ohiko mantentze lana eginda, erantzuteko denborak bermatuta lan egunetako zazpi ordutan, gutxienez.
- Beste eskaintza batzuetan jai egunetako zaintza zerbitzua sartu litzateke. Eskaintzaren hobekuntza edo aukera modura hartuko da eta aurkeztu den zerbitzuaren proiektuan justifikatu eta baloratu daitezke eta berariaz onartuak izango dira esleipenean.
- Konponketa bat hasteko kasuan, lanak ezin izango dira eten amaitu arte, ezta ohiko zerbitzu ordutegitik kanpo badira ere, matxuraren garrantzia edo haren ondorioak zerbitzuaren zuzendaritzaren iritzian larriak badira. Era berean, lan ordutegitik kanpo konponketa batzuk egitea ere eskatu liteke.
- Zuzendaritzaren esku telefono zenbaki bat jarriko da enpresako arduradunarekin zuzenean kontaktatzeko, egunean 24 orduetan.

EUSKERA IRIZPIDEAK

Kontratastaren harreman guztiak, bai Administrazioarekin zein erabiltzaileekin euskaraz izango dira. Halaber, bide publikoan zein udalaren eraikinetan jarriko den edozein seinale, iragarki edo beste idazkun ere, euskaraz idatzita egongo da.

Kasu guztietan, Euskerearen Normalizazinarako Udal Ordenantzea zehatz-mehatz bete beharko da.

OROKORRAK

- Zerbitzuari esleitu zaizkion ordezeko piezak, ekipoak zein gainerako elementu guztiak udalaren jabetzakoak izatera igaroko dira kontratua amaitzen denean eta kontserbazio egoera onean egon beharko dira.
- Udalak izendatzen dituen pertsoneri zerbitzua kudeatzeko ikastaroak ematea, instalatutako ekipoen erabilera egokia bermatzeko.

II – ZEHAZTASUN TEKNIKOAK ETA EKIPOEN FUNTZIONAMENDUA

1.- ALDE ZAHARRERAKO SARBIDEA

Ekipoek baldintza hauek betetzen dituzte.


- Arautze motaren edozein aldaketa edo zabalpen onartzeko moduan diseinatuta daude ekipoak.
 - Etorkizunean beste ekipo ezberdin batzuekin ere kontrol puntuak gehitu ahal izateko aukerarekin bateragarriak izango dira instalazioak.

Jarritako eskemaren arabera, 8 ate ezartzen dira. Haien funtzioa koadro honetan zehazten da : (1. Eranskina)

Atearen zk.	Kokapena	Helburua	Ekipamendua
1	Intxausti Kalea	Sarbidea	Esku-hartzea presentziaz eta orduaren arabera TVCC Interfonia bolardo bat
2	Nardiz tar Jon kalea	Irteera	Esku-hartzea presentziaz Bolardo bat
3	Arresi Kalea 12	Irteera	Bolardo erdiautomatiko bi (*)
4	Arresi kalea 1	Sarbidea	Esku-hartzea presentziaz eta orduaren arabera TVCC Interfonia bolardo bat
5	Eskinarruga kalea	Irteera	Esku-hartzea presentziaz Bolardo bat
6	Lope de Haro kalea	Sarbidea/Irteera	Esku-hartzea presentziaz eta orduaren arabera TVCC Interfonia bolardo bat
7	Eupeme Deuna kalea	Irteera	Esku-hartzea presentziaz Bolardo bat
8	Arresi kalea 52	Sarbidea	Esku-hartzea presentziaz eta orduaren arabera TVCC Interfonia bolardo bat

(*) *Bolardo erdiautomatikoek gora egiteko edo barruratzeko sistema hidraulikoa daukate.*


Beraien ondoan espira batzuk egongo dira jarrita segurtasunerako eta baimendutako ibilgailua heltzen denean elementu barneragarriak gorantz egin duela ziurtatzeko, eta ez dezala egin ibilgailua bere gainean jarrita dagoenean. Berdin funtzionatuko du sistemak argi indar nahikorik ez dagoenean bolardoek gelditzeko.



Kontrolerako terminal guztiak zuntz optiko bidez konektatuta daude kontrol-zentrona, Udaltzaingoaren komisaldegia dagoena, hain zuzen ere. Zentro honetatik terminal guztiak kontrolatzen dira interfono bidez erabiltzaileek egiten dituzten eskaerak aditzeaz gain. Eragiten diren alarmak ere hartzen dira bertan eta sortutako gora-beheri buruzko informazioa ere hartzen da. Sarbideen kontrol begiztatua ere egiten da bakoitzean jarrita dagoen kamera finkoari esker.


Sistema, era automatikoan funtzionatzen duenean ordutegia kontrolatzeko, egoera murriztuan egongo da. Mugatutako inguru horretan sartzeko erabiltzaileak izango duen bide bakarra, emandako txartela erabilia izango da edo Udaltzaingolari kontrol zentroan eskaera eginda.

Sistemaren funtzionamendu operatiba sarbide prozesuaren zehar, honakoa da :



Zk.	EKINTZA JARRAIBIDEA	AZALPENA
0	Hasierako egoera: ibilgailurik gabe	Semaforoaren disko gorria piztuta dago finko. Oztopo-harria goratuta dago.
1	Ibilgailua gelditzen denean terminalaren aurrean, presentzia-begiztak detektatu egiten du.	Irakurgailua aktibatu egiten da gidariak sarbidea baliotu dezan bere txartelaren bide edo kontrol zentroari eskatuta.
2	Txartel/agintea baliozkoa bada, terminalak jaistea aginduko du.	Oztopo-harriak guztiz jaitsi direnean, anbar semaforo kinukaria piztuko da.
3.1.	Ibilgailuak atzez egiten badu eta presentzia-begizta utzi	Oztopo-harriek gorantz egingo dute.
edo 3.2	Ibilgailua segurtasun-begizten gaineratik igarotzen bada segidaka eta uzten baditu inguruan sartzen delako,	Semaforoa gorritz jarriko da eta gero, segundo batzuk igarota, oztopo-harria gorantz egiten hasiko da.

Irteera prozesuan sistemaren funtzionamenduaren operatiba honakoa da



Zk.	EKINTZA JARRAIBIDEA	AZALPENA
0	Hasierako egoera: ibilgailu barik	Semaforoaren disko gorria piztuta dago finko. Oztopo-harria goratuta dago.
1	Ibilgailua gelditzen denean gelditze lerro gainean, honen zati bat lehenengo presentzia-begizta gainean egongo da. Beharrezko baldintza izango da hau automatikoki detektatua izateko eta igarotzeko baimena emateko.	Gelditze-lerroaren kokapena oztopo-harrien posizioak emango du. Momentu honetan semaforoa gorrian egongo da.
2	Ibilgailua detektatua denean, irteerako atea barru den taldeko terminalak oztopo-harria jaisteko agindua emango du.	Ez dago denbora mugarik, oztopo-harriak jaitsita egongo dira ibilgailuak bere posizioa aldatzen ez duen bitartean. Oztopo-harriak beherantz egiten duenean guztiz, orduan jarriko da semaforoa anbar

		keinukarian.
3	Si el vehículo pasa sucesivamente por encima de los bucles de seguridad y los abandona porque sale de la zona	Semaforoa gorritz jarriko da ea gero, segundo batzuk igarota, oztopo-harria gorantz egiten hasiko da.

Sarbide eta irteerako bolardoen zehaztasunak

- ✓ Altzairu herdoilgaitzezko pibote pneumatikoa Aisi-316-L (Pni-570)
- ✓ Eragin bikoitzeko eragingailu pneumatikoa.
- ✓ 22 cm.ko diametroa
- ✓ Emertsio altuera (zorutik ikusgarria): 50 cm.
- ✓ Altzairu herdoilgaitzezko itxitura tapa Aisi-316-L irristagaitza
- ✓ Altzairu herdoilgaitzezko torlojuak
- ✓ Altzairu herdoilgaitzezko gidari trinkoak
- ✓ Irristatze-gidariak polimero aurreratuetan
- ✓ 63/22 Zilindro pneumatikoa

Samn-15 talde elektro-neumatikoaren ezaugarriak

- ✓ 220V/50HZ (0,5 CV) potentziako motorrak bultzatua.
- ✓ IP-67 Babesa
- ✓ Presio gehiengoa eta gitxiengoa erregulatzeko presostatoa.
- ✓ 5 bide/2 posizio erregulatzeko elektro-balbula 24 V cc.ta.
- ✓ Konpresoreen emaria: 70 l/min.

2.- ZEHARBIDEKO SEMAFOROEN ERREGULAZIOA

Ekipoek ezaugarri hauek dituzte:

- Oinezkoentako 3 pasagune erregulatzen ditu, semaforo 1ekin norabideko, LED teknologiaz hornituak, hain zuzen ere.
- Zutabean jarritako semaforoak. Zutabe bakoitzak 3 lentedun (gorria, anbarra eta berdea) semaforo nagusiz eta gidariaren parean bi lentedun (gorria eta berdea) semaforoz hornituta dago.
- Oinezkoaren semaforoek kontadore bat daukate, sakagailua sakatuz eskatuta erregulatuko da eta udalak (Udaltzaingoak) finkatuko ditu zikloak.
- 3 puntuak koordinatuta daude.
- Itsuentzako ohar akustikoz horituta egongo dira aginte bidez eskatuz gero.

III – ESKAINTZETAN ISLATU BEHAR DIREN AGIRIAK

Eskatzen diren proposamenetan agertu beharko dira gutxienez, honako frogagiriak:

ZERBITZUAREN PROIEKTUA

Lizitatuzaileen proposamenean **Zerbitzu Proiektu** bat aurkeztu behar da, honako hauek zehaztuko dituena:

1.- Mantentze plangintza.

- Edukia, ordutegia, ohiko mantentze lanen maiztasuna eta intentsitatea.
- Erantzun metodo eta denbora ziurtatuak konponketak egiteko eta gora-beherak artatzeko.

2.-Ekipo teknikoa.

- Mantentze lanaz arduratuko den giza-taldearen kopurua, kalifikazioa eta prestasuna.
- Zerbitzua kudeatzeko beharrezkoak diren baliabide materialen deskripzio eta justifikazio zehaztua. Bertan sartuko dira gainera, sistemaren eta giza-ekipamenduen zertzelada guztiak, bulegoen prestasuna, biltegien, ibilgailuen, komunikabide eta sistema informatikoen, lan-tresnen, ordezeko piezen eta abarren erabilgarritasuna.
- Kontratua amaitzen denean udalaren esku jarriko diren material guztien deskripzioa. Udalak ez du ordainduko beraiengatik ezelako kopuru gehigarririk, kontratu honen barruan sartuta daudelako.

3.- Aurrekontua.

- Partida bakoitzeko kostu zehaztua azalduko da: langileak, material suntsikorrak, ordezeko piezak, alokairuak, aseguruak, kontsumoak, etab.
- Hirugarrenei sortutako kalteei aurre egingo dien erantzukizun zibileko poliza bat eduki beharko du, estalita geratuko lirakeen zenbatekoak aipatuta. Horretarako, adjudikaziodunak beregain hartuko ditu kontratuan sartzen diren elementuen kontserbaziotik eratorritzen diren erantzukizun guztiak, instalazioen funtzionamendu edo kontserbazio akatsen batek eragindako istripuen ondorioak ere beregain hartuz, baita instalazio eta konpontze lanak ere.
- Kontserbaziorako beharrezkoak diren lanak, materialak, makineriak eta laguntza baliabideak sartuko dira, instalazioen konponketak be bai, garbiketa eta pintura lanak be barru dirala.
- Kontratua amaitu ostean udalaren esku geratuko dira konponketak egiteko, beharrezkoak diren ordezeko elementuen eta tresna berezien aurrekontu zehatza. Presupuesto pormenorizado de los elementos de repuesto y herramien

4.- Beste batzuk

- Mantentze kontratu barruan zerbitzuaren ordutegi ohikotik kanpoko konponketak egiteko langileen prestasuneko urtean 10 ordu sartuko dira.
- Prezio unitarioen koadro bat aurkeztuko da. Honen barruan, langileen maila bakoitzeko orduaren prezioa azalduko da, instalazioa osotzen duten elementu eta ekipa guztiak, obra zibilaren unitate guztiak eta kontratuan sartu ez diren beste elementu guztiak ere, kontratuen eremutik kanpoko zerbitzuarekin zerikusia duten egin beharreko lanen kasuan aplikatzeko. Lan espezifiko batentzako prezioaren baten konstantziarik ez balego, adjudikaziodunak eta Zerbitzuko Zuzendaritzak adostutako kontraesaneko prezioak aplikatuko lirake, kontratuetako prezioetan oinarrituak. Aktan agertuko da hau.
- Eskematikoki azalduko da eta orientatzeko asmoarekin, lizitatuzailearen ustean bere eskaintza baloratzeko orduan bereziki kontuan izan behar diren zehaztasunak, eskaintzen den teknologiaren ezaugarri bereziengatik, salgai

dauden beste batzuetatik ezberdinak direla agertzeko, edo eskaintzen den diseinua berezia delako.

IV – HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK

Adjudikazioduna derrigortuta dago Baldintza Agirian agertzen den guztia eta zerbitzuaren garapen onenerako udalak agintzen diona zehatz-mehatz betetzera.

HUTSEGITEAK

Adjudikaziodunak egindako hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan litezke.

- **Hutsegite arinak**

Hutsegite arintzat hartuko dira:

- ✓ Instalazioetako matxurak ezarritako epe barruan ez konpontzea, beti be, lan egun bat baino gehiagokoa ez bada atzerapena.
- ✓ Instalazioak osotzen dituzten elementuak garbitu edo pintatzeko ezarritako epeetako atzerapena, edo lan honeek era egokian ez egitea.
- ✓ Instalazioak osotzen dituzten elementuetan prebentziozko mantentze lanentzat ezarritako epeetan atzerapena izatea, edo lan horiek era egokian ez egitea.
- ✓ Udalaren zuzendaritzak kontratuan sartzen diren lanak egiteko emandako aginduak betetzean 24 ordutik gorako atzerapena egotea.

- **Hutsegite larriak**

- ✓ Hutsegite arin mota bakoitza errepikatzen bada eta urtebete barruan hiru bider zigortua izan bada.
- ✓ Kontratu barruan sartutako instalazioetako ekipo edo elementuentzako ezarrita dagoen prebentzio mantentze lanik urtebetean ez burutzea.
- ✓ 72 ordu baino lehen matxurarik ez konpontzea.
- ✓ Udalaren zuzendaritzak kontratuan sartzen diren lanak egiteko emandako aginduak betetzean 72 ordutik gorako atzerapena egotea.
- ✓ Kontratu barruan sartzen diren lanak era desegokian burutzeak zein jardute maltzurrek egiteak era ezezkorrean eragin ahal badute kontratuan eta instalazioen osagaien bizitza ekonomikoan edo bideetako erabiltzaileei gogaitasunak eragin.
- ✓ Urtean hiru egunetan baino gehiagotan ezarritako ordutegia bete ez bada.

- **Hutsegite oso larriak**

- ✓ Hutsegite oso larritzat hartuko dira hutsegite larri mota bakoitza errepikatzen bada eta urtebete barruan hiru bider baino gehiagotan zigortua izan bada. Urtebetea hutsegiteko oso larri bi izateak kontratua bertan behera geratzea erakarri lezake.


ZIGORRAK

Kontratatik egindako hutsegiteak Alkatetzak zigortuko ditu hurrengo prozedura jarraituta:

- ✓ Hutsegite arinak zuzenean zigortuko dira Zerbitzuaren Zuzendaritzaren proposamenaren arabera. Isuna 600 eta 1.500 euro bitartekoa.
- ✓ Hutsegite larriak 1.501 eta 5.000 euro bitarteko isunaz zigortuko dira, Gobernu batzordeak proposamen egin eta gero.
- ✓ Hutsegite oso larriak 5.001 eta 7.000 euroko isunekin zigortuko dira, behin betiko fidantza galduta eta kontratatik zenbateko bereko fidantza berri bat jarri beharrekin edo kontratua iraungitzearekin, arauak ezarritako prozedurek kontuan izanda. ,
- ✓ Zigorren zenbatekoa, gehitu egingo da hutsegitearen arabera, udalaren zuzendaritzak burutu ez den zerbitzuaren, aplikatu ez diren baliabideen edo instalazioetan sortu ahal izan diren kalteei buruz egiten duen balorazio ekonomikoa kontuan hartuta.

Zigorren zenbatekoa urtero gehituko da urteko KPIaren urteko igoeraren arabera.

1. eranskina.- Ateen kokapen planua



LEGENDA	
● S	- SARRERA
● I	- IRTEERA
● S-I	- SARRERA - IRTEERA
● S.A.	- SEMI - AUTOMATIKOA

ALDE ZAHARRAREN PEATONALIZAZIOA

KOKALEKUA: ALDE ZAHARRA, BERMEIO
DATA: 2020/03/27UNA
IZENKAPENA: PIBOTEEN KOKAPENA
PROIEKTU ZUK: 1
PROIEKTU OLAGU:
SARTUNTZAK: BERMEOKO UDALA
ESKALA: 1/2000
EREGIA: UDAL BULEGO TEKNIKOA
EREBORDUA:

